


Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2023ko irailean, aurreko hilarekin alderatuta

2022ko irailarekin alderatuta, industria-prezioak % 3,0 jaitsi dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2023ko irailean, aurreko hilarekin alderatuta. Iraileko urtetik urterako tasak, zeinak jasotzen baitu zer aldakuntza izan duten industria-prezioek azken hamabi hiletan, % 3,0 jaitsi da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten duenez, 2023ko irailean honako sektore hauek izan dituzte igoerarik handienak beren prezioetan aurreko hilarekin alderatuta: *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 5,8ko igoera), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 3,8ko igoera) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 3,3ko igoera). Hiletik hila jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak, berriz, hauek izan dira: *Altzariak, beste manufaktura-industria batzuk, konponketa eta instalazioa* (% 1,0ko jaitsiera) eta *Makinieriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 0,7ko jaitsiera).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraikiz, *Energiaren* prezioak % 5,0 igo dira 2023ko abuztuarekin alderatuta. Bestalde, *Ekipo-ondasunen* prezioek egonkor jarraitu dute, eta *Bitarteko ondasunen* prezioek, berriz, % 0,1eko jaitsiera izan dute. *Kontsumo-ondasunen* prezioek ere % 0,1eko jaitsiera izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen % 0,2ko jaitsieraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioen % 0,4ko igoeraren ondorioz.

Urtetik urtera, 2023ko iraila 2022ko irailarekin alderatuta, jaitsierarik handienak honako adar hauetan gertatu dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 25,2ko jaitsiera), *Industria kimikoa* (% 7,0ko jaitsiera) eta *Koke-lantegiak eta petrolioaren finntzea* (% 5,6ko jaitsiera). Urtetik urtera prezioetan igoerarik handienak izan dituzten adarrak, berriz, honako hauek izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 12,1eko igoera), *Botiken fabrikazioa* (% 11,9ko igoera), *Erauzketa-industriak* (% 11,5eko igoera) eta *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuk* (% 10,5eko igoera).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	131,4	1,1	-3,0
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	125,5	1,7	11,5
Manufaktura-industria	131,6	0,7	1,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	131,1	-0,3	7,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,6	3,8	12,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	147,7	1,8	5,1
Kokeak eta petrolioaren finntzen	158,8	5,8	-5,6
Industria kimikoa	145,3	0,0	-7,0
Botiken fabrikazioa	134,5	2,1	11,9
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	121,1	0,5	10,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	138,6	-0,3	-0,8
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	122,1	0,4	1,7
Material eta ekipoen fabrikazioa	116,7	0,0	3,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,5	-0,7	4,4
Garraiorako materialen fabrikazioa	113,3	-0,1	6,7
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	120,9	-1,0	6,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	130,0	3,3	-25,2
Ura	132,3	0,3	8,9
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,0	-0,1	7,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	118,2	0,4	6,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	130,7	-0,2	7,2
Ekipoen-ondasunak	118,8	0,0	5,2
Bitarteko ondasunak	134,2	-0,1	1,7
Energia	146,9	5,0	-16,4

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Urriaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da helburu ekonomikoaren arabera sailkatutako ondasun-talde handi guztietan, *Energiaren* kasuan izan ezik, talde horretan % 16,4 jaitsi baitira prezioak. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 7,1eko igoera izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen % 7,2ko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioen % 6,0ko igoeraren ondorioz. *Ekipoen-ondasunen* prezioak % 5,2 igo dira, eta, azkenik, *Bitarteko ondasunen* prezioen kasuan, igoera % 1,7koa izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea lagingaren % **93,11**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62